

**LEHENENGO
HIZKUNTZA ESKAKIZUNA**

IDATZIZKO AZTERKETA

ARGIBIDEAK

 Hizkuntza eskakizun honen azterketak bi zati ditu:

Ahozko azterketa

- Ahozko azterketa, idatziaren ondoren egingo da. Non eta zer ordutan egin behar duzun, irteeran esango dizugu. Hizkuntza eskakizuna egiaztatu ahal izateko, ahozkoa eta idatzia biak gainditu behar dituzu. Ez zaitetz joan, beraz, ahozkoa egin baino lehen.
- Ahozko azterketan elkarriketa izango duzu aztertzaileekin. Egiten hasi baino lehen, haiek esango dizute zeri buruz hitz egin behar duzun. Jakina, zeure euskalkian hitz egin dezakezu eta euskara batuan ere bai.

Idatzizko azterketa

- Idatzizko azterketak bi ariketa ditu: irakurmena eta idazmena. Bi ariketa hauek egiteko **ordubete eta 15 minutu** izango dituzu.
- Irakur itzazu ariketa bakoitzaren aurrean datozen argibideak, eta bertan jartzen duena egizu.
- Idatzizko azterketaren ariketak boligrafoz egin behar dira; saia zaitetz letra txukuna egiten.

1. IRAKURMENA

- **Teknika:** Aukera anitzeko galderak
- **Ariketa:**
 - Ondoren testu bat daukazu eta jarraian testu horri buruzko galdera batzuk.
 - Galderei erantzuten hasi aurretik testua arretaz irakurtzea gomendatzen dizugu.
 - Galdera bakoitzarekin batera lau erantzun ematen zaizkizu: a), b), c) eta d). Egokiena aukeratu behar duzu.
 - Erantzuna aukeratzekoan, erantzun-orrian bertan markatu borobil batez a), b), c), edo d).

MOTOA BIZIMODU

Motozaleek larruzko jantziak eramaten dituzte eta motoetan buru-hezurak eta sugeen irudiak daramatzate. Motozaleentzat motoa bizitzeko modu bat da eta motorik gabe ez doaz inora. Denbora eta ardura handia eskatzen du, eta dirua ere bai, noski; baina, motozale batek motorrarekin daukan «sexurik gabeko amodio» horregatik ia edozer egin dezake.

Alberto Rodriguez Elizalde iruindarra, lagunentzat betidanik *Arelizalde* ezizenez ezagunagoa, motozale horietako bat da. Motozalea izateaz gain, argazkilaria ere bada eta gaztea zenetik bi zaletasunak lanbide bihurtu ditu. Gaur egun, *Easyriders* moto kontuetan espezializatu den aldizkarian lan egiten du. Moto-kontzentrazioetara joatea eta argazkiak ateratzea da bere lanbidea.

Arelizalde astebururo joaten da motozaleen kontzentrazioetara. Espainiako eta atzerriko errepideak dagoeneko ongi ezagutzen ditu. Asteburuetarako planak eginak izaten ditu: Albacete, Tarragona... Zerrenda amaierarik gabea da; izan ere, urte osoko plangintza prest izaten du motozale iruindarrak. Asteburu bakoitza abentura berria izaten da, eta askotan, bidean bizitako istorioak helmuga bera baino interesgarriagoak dira.

Moto-kontzentrazioetara doanak 20-25 euroren truke izena ematen badu, non lo egin eta zer jan edukiko du, baita kontzentrazioarako prestatu diren ekintza eta ekitaldi guztietan parte hartzeko aukera ere: herria ezagutu, pultsu-txapelketak, moto-lasterketak... Horrela igarotzen dute eguna kontzentrazio batean biltzen diren 300 edo 400 pertsonak. Gauerako, rock gogorra jotzen duen talderen baten kontzertua entzun, garagardoa edo whiskya edan eta *streap-tease-a* ikusteko aukera izaten da. Baina, une horietan, motorra geldirik egoten da, gehiegi maite dutelako beraien motoa mozkorturik gidatzeko.

Gehienok uste dugunaren aurka, motoak segurtasun handiko ibilgailuak dira, eta istripuak izaten dituztenak gehiago izaten dira auto-gidariak edota *scooter* deituriko moto txikietan ibiltzen diren hirietako gaztetxoak. «Motoak ez dituzte behar bezala gidatzen eta ez dira konturatzen, daukaten motoa ez dagoela edonola ibiltzeko prestatuta, horregatik gertatzen dira istripuak» dio *Arelizalde-k*. Hala ere, moto-istripuak gertatu, gertatzen dira eta, gainera, konponketak garestiak izaten dira. Horretaz gain, moto-gidarien etsairik handiena haizea izaten da; euriak eta hotzak, ordea, ez diete kalte handiegirik egiten.

Motoa, gorputzaren zati bat izango balitz bezala zaintzen dute motozaleek; batzuek 60.000 euro gasta ditzakete ibilgailuak behar dituen konponketatxoak egiten. *Custom* motako motoa erabiltzen dutenek, batez ere estetikoki transformatzen dute motoa; eta *turismo* motakoak dauzkatenek mekanikari dagozkion aldaketak egiten dizkiete, gehienbat. Batzuek, autoa ere edukitzen dute baina motoa tailerrean dutenean baino ez dute erabiltzen.

Gero eta emakume gehiagoren zaletasuna da motoan ibiltzea. Etxean geratu beharrean, motozikleta-irteerak antolatzen dituzte. Adina ere ez da oztopoa motozale izateko, 70 urtetik gorako pertsonak kontzentrazioetan aurkitzea jada ez da hain harrigarria.

MAYI TOLOSA
ARGIA, 2004ko ekainaren 20a
EGOKITUA

1.1. ERANTZUN-ORRIA

- **Irakurgaia:** « MOTOA BIZIMODU »
- **Teknika:** Aukera anitzeko galderak.

1. ZEIN DA EGIA?

- a) Motozaleek buru-hezurak eta sugeen irudiak erabiltzen dituzte janzteko.
- b) Motorik gabe daudenean, motozaleek beste edozein ibilgailu erabiltzen dute bidaiatzeko.
- c) Diru eta denbora asko behar arren, motozaleentzat garrantzitsuena motoa da.
- d) Motozale batek asko maite du bere motoa, baina ez edozer egiteko adina.

2. *Areizalde(k)*...

- a) Iruñeko motozale bat da baina ezizen horrekin gaztetan soilik ezagutzen zuten.
- b) gaztetan bi lanbide zituen: motozaletasuna eta argazkigintza.
- c) motozalea denetik egiten du lan *Easyrider* aldizkarian.
- d) gustuko duena, gaur egun bere lanbidea izatea lortu du.

3. Zer dakigu *Areizalderen* asteburuetako bidaiari buruz?

- a) Astebururo ezagutzen dituela Espainiako eta atzerriko motozaleen zerrendak.
- b) Astebururo, batez ere, Albacetera edo Tarragonara joaten dela.
- c) Urte osoko bidaiari plangintza egitea abentura berri bat izaten dela.
- d) Askotan, bidean gertatzen zaizkion gauzak izaten direla interesgarrienak.

4. Motozaleen kontzentrazioetan...

- a) ordaintzen baduzu, ez zaizu janaria edo lo egiteko lekurik faltako.
- b) herria ezagutzeko 20-25 euro ordaindu behar izaten da.
- c) ekintzak aukeratu behar izaten dira, ezin delako gustukoenetan parte hartu.
- d) 400 pertsonak, ez gehiagok ez gutxiagok, hartzen dute parte ekintzetan.

5. ZEIN DA EGIA?

- a) Motozaleek goiz-goizetik kontzertuak, *streak-tease-ak* ... dituzte ikusteko.
- b) Kontzentrazioetan, gauean, musika estilo ugari entzuteko aukera dago.
- c) Motozaleek ez dute garagardoa edo whiskya edan ondoren motoa hartzen.
- d) Motozaleek hainbeste maite dute motoa, mozkortuta ere gidatzen dute.

6. Bestela pentsatu arren...

- a) motoan dabiltzanek autoetan dabiltzanek baino istripu gutxiago edukitzen dute.
- b) *scooter-ak* oso seguruak dira eta moto txiki horiek gidatzen dituztenek badakite halaxe dela.
- c) moto-gidariak, gehienetan, euriaren eta hotzaren ondorioz izaten dituzte istripuak.
- d) haizea izaten da moto-gidarien etsairik handiena, eta horrekin batera euria eta hotza.

7. ZEIN DA EGIA?

- a) Motozaleek normalean 60 mila euro gastatzen dituzte konponketetan.
- b) Motoaren arabera, konponketak desberdinak dira: estetikoak, mekanikoak...
- c) *Custom* eta *turismo* motako motoei aldaketa estetikoak egiten dizkiete batez ere.
- d) Autoa duten motozaleek, tailerrera eramateko bakarrik erabiltzen dute motoa.

8. Zer esaten zaigu motozaleen adinari eta sexuari buruz?

- a) Etxean geratzen diren emakume asko motozaleak direla.
- b) Adinak eta sexuak ez dutela garrantzirik motozale izateko.
- c) Etxean geratzeko ez dagoela adin edo sexu mugarik.
- d) 70 urte bete ondoren motozale izatea oztopo ikaragarria dela.

1.2. ZUZENKETA-ORRIA

- **Irakurgaia:** « MOTOA BIZIMODU »
- **Teknika:** Aukera anitzeko galderak.
- **Baremazioa:** 5 erantzun zuzen edukitzea eskatzen da.

ERANTZUN ZUZENAK

1.	C	5.	C
2.	D	6.	A
3.	D	7.	B
4.	A	8.	B

2. IDAZMENA

- **Teknika:** INPRIMAKIA
- **Oharrak:**
 - Hurrengo orrialdean agertzen den inprimakia bete behar duzu.
 - Letra garbia eta txukuna egiten saiatu.

GAIA: TAO-OTA makina ez dabil. Ezin izan duzu txartela atera. Egin beharreko enkarguak egin eta autora itzuli zara. Isuna ipini dizute. Ez zaude ados.

Udaletxera joan zara erreklamazioa jartzera. Ondorengo erreklamazio-orria betetzeko esan dizute. Bertan, zer gertatu den, noiz... azal ezazu eta eska ezazu konponbidea.

Oharra: ariketa egiteko, hurrengo orrialdean agertzen den inprimakia erabili.

